

I+G+b zahartzean: Euskadiko ekonomiarako aukerak

Karmele Acedo Gil

Europak gaur egun daukan erronka sozialik garrantzitsuenetako bat biztanleriaren zahartzea da. Gaur, inoiz baino gehiago, aurrez ezagutu gabeko desafio baten aurrean jartzen gaitu erronka horrek.


Argi ikus daiteke zein diren fenomeno horren eragileak:

- Bizi-itxaropena areagotu da, osasunean, etxebizitzan eta nutrizioan izandako hobekuntzen ondorioz. Ildo horretatik, Euskadi lehen buruan dago mundu mailan, bizi-itxaropenarekin eta desgaitasunik gabeko bizi-itxaropenarekin zerikusia duten alderdietan.
- Jaiotze-tasen beherakada.

Euskadik, gaur egun, erronka horri erantzun behar dio, baina, horretaz gain, lurralde gisa aukera bat eta erronka bat dauka praktika onak probatzeko eta garatzeko gune bat izan dadin, aipatu fenomenoari aukera gisa aurre egiteko.

Jarduera, enpresa eta enplegu berriak sortzeko aukera, eskaera sozial horri erantzungo dioten zerbitzuez hornitzeko.

65 urtetik gorako biztanleriaren bilakaera



Zahartzearen gaiari heltzerakoan, kontuan izan dezakegu eta izan behar dugu zahartzea hau dela:

- **Prozesu natural eta desiragarri bat**, bai maila pertsonalean, bai gizarte- eta komunitate-mailan. Lortu behar dugu pertsonak desgaitasunik gabe zahartzea, eta, azkenean, desgaitasun hori iritsiko balitz ere,

behar horiei buruz ulertzen duen inguru bat izatea, daukagun hau guztia posible egin duen horri erantzun ahal izateko nahikoa baliabide, azpiegitura, laguntza tekniko eta babesekin.

- **Multidimentsionala**, eremu soziosanitariotik harago doana, eta beste eremu batzuetan eragiten duena; besteak beste, honako hauetan: bizialdi osoko ikaskuntza, enplegua, kultura eta aisialdia, balioak, hirigintza, garraioa, elikadura edo fiskalitatea.
- **Lorpen pertsonala eta soziala**: benetako erronka izango da “bizitzea” eta gizarte zahartu baten “parte aktibo” izatea, zeinahi delarik ere gure adina.
- **Garapen sozial eta ekonomikorako aukera bat, Euskadirentzat**. Berrikuntzak sortzeko laborategi handi (living lab) bihurtu daiteke, beste herrialde batzuentzako eredugarri.

Paraleloki, adinekoaren profila aldatu egin da gure gizartean, eta geroz eta zabalagoa eta heterogeneoagoa da. Honi buruz ari gara:

- **Zahartzaroko adin desberdinak**: 60-70-80-90...
- **Zahartzaroko errenta-maila desberdinak**, geroz eta maila, premia eta demanda desberdinagoekin.


60 eta 70 urte bitartekoak dira enpresetan beren aurrezkiak gehien inbertitzen dituztenak (Iturria: EIN, Espainia, 2015).



- **Mundu digitalerako gaitasuna duten eta IT teknologiak erabiltzen ohituak dauden adinekoak**. Euskadin, 65 urtetik gorakoen % 68,5ek internet daukate etxean, eta ordenagailu, tableta edo telefono mugikor inteligente bat erabiltzen dute.


- Interneterako konexioa, etxean, adinaren arabera (Iturria: INE, Espainia, 2015).

○



○

- 60 urtetik gorakoek ere ordenagailua, tableta edo smarthpone erabiltzen dute eta Interneteko konexioa dute



- **Biztanleriaren kezka eta interes kultural desberdinak.** Euskadin, aisialdi eta kulturako produktuen kostuaren igoerak kontsumo-inpaktu txikia izan duen gizarte-kolektiboetako bat 65 urtetik gorakoen kolektiboa da.
- Eta, batez ere, **aktiboki eta nor bere etxean zahartzeko borondate irmoa.**

Elementu horiek guztiek asko eragingo dute zahartze-prozesuan dagoen gure gizarteak izango duen jokaeran, eta, beraz, gure eskaeraren eta gure kontsumoaren bilakaeran. Horregatik, zahartzeari lotutako berrikuntza-erronka benetakoa aukera gisa identifikatzea da, eta jakitea adina eremu guztietan kudeatzen, horrek sortzen dituen aukera desberdinak antzemateko gai izanda.

Errealitate sozial horri ekonomia- eta enplegu-garapenerako aukera gisa aurre egiteko, ikuspegi sortzaile bat izan behar da, arazoa bertute eta enplegu- eta aberastasun-iturri bihurtuko duena. Merkatu bat sortzeko, bat egin behar dute eskaerak (premiak) eta eskaintzak (eskaera horri zerbitzua eskaintzen dioten enpresak), eta norbaitek hartu behar du bere gain prestazio horren kostua (ezingo da beti administrazioa izan, eta, beraz, negozio-, zerbitzu- eta enpresa-eremu berriak sortuko dira).

Herrialde-mailan, beharrezkoa da sortzen ari diren eta zahartzeko beste modu bat dakarten elementuak identifikatzea, horiek lagunduko baitigute zahartzaroaren eredu jasangarri bat zehazten, eta horretarako, ezinbestekoa da berrikuntza (produktuetan, zerbitzuetan, negozio-ereduetan, politiketan, lankidetzan publiko-pribatuan...).

Home Care Lab, Zerbitzu Sozial Integratuak Taldearen I+G+b unitatea

Home Care Lab, S. Coop. (aurrerantzean HCL) Zerbitzu Sozial Integratuak Taldearen (aurrerantzean SSI Taldea) I+G+b enpresa-unitatea da. 2011n sortu zen, eta 2012an Euskadiko Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareak homologatu zuen. HCLk zahartzaroaren, kronikotasunaren eta

menpekotasunaren inguruko gaitasun berritzaileak indartzen laguntzen du, eta horretarako, eremu horietan dagoen ezagutza antzematen, garatzen eta zabaltzen du, ikerketa-prozesu ireki eta kooperatibo baten bidez.

SSI Taldea profesionalen osatutako enpresa-talde bat da, helburu duena modu integratu batean erantzutea autonomia-defizita duten Euskadiko pertsonen eta beren senitartekoen behar sozialei. Bere ezaugarria da erantzukizun publikoko zerbitzu sozial kalitatezkoak kudeatzea, ekonomia sozialaren planteamendu batetik. SSI Taldea 1986an sortu zen, Bilbon, helburu bikoitz batekin: baliabide ekonomiko gutxiko adinekoei laguntzea eta pertsonak artatzeko zerbitzuak eskaintzen zituzten emakumeen autoenplegua antolatzea (normalean ezkutuko ekonomian aritzen ziren).

Ordutik aurrera, lan izugarria egin du lan-banaketaren eta emakumearen sustapenaren arloan. Hain zuzen ere, Espainian dauden izaera sozialeko kooperatiba handien artean, kooperatiba hau da bakarra oso-osorik emakumeek kudeatzen dutena.

HCL berrikuntza sozialeko entitate bat da, arreta soziosanitarioaren sistemari lotutako soluzio berriak bilatzen dituen, nabarmen zahartzen ari den gizarte batean. Izan ere, gizarte horrek soluzio berritzaileak eskatzen ditu, teknologia berrien indarra ekarriko dutenak, aurre egin ahal izateko geroz eta ugariagoak, bereziagoak eta desberdinagoak diren arreta-premiei.

HCLren jarduerak honako hauek hartzen ditu:

- Zaintza teknologikoa, estrategikoa eta prospektiboa.
- Ikerketa aplikatuko eta aurrerapen teknologikoko proiektuak garatzea.
- Lankidetzako proiektuetarako laguntza eta zerbitzua eskaintzea.
- Produktu, zerbitzu eta/edo terapia berriak probatzea eta ebaluatzea laborategi aktiboan.
- Prestakuntza-baliabideen, argitalpenen, webguneen eta abarren bidez jasotako ezagutza eta esperientzia zabaltzea.

Hauek dira bere ezagutzaren arlo estrategikoak:

- Oinarri teknologikoa etxean duen laguntza soziosanitarioa.
- Zahartze aktiboa.
- PROFIL PROFESIONAL BERRIAK ETA PRESTAKUNTZA
- Zahartze aktiboa komunitatean.
- Arreta-eredu berriak.

HCL Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Euskal Sarearen unitate berezi bat da, bai bere proiektuen tipologiagatik, bai sareko beste bazkide batzuen proiektuetara, sarera bertara eta zientzia, teknologia eta berrikuntzaren euskal sistemara aldi honetan eraman duen ezagutzagatik. Berezi egiten duena da, batetik, bere jatorri enpresarial eta soziala, eta, bestetik, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Euskal Sareari eremu soziosanitarioan egin dion ekarpena, ikuspegi, ezagutza eta konpetentzia psikosozial berriak eskainiz, eremu horretan, eta bereziki, pertsona eta kolektibo zaurgarrien zainketan, berrikuntza eta garapen-eredu berriak bultzatzeko, fokua zahartzaroan eta mendekotasun-egoeran dauden pertsonetan

jarrita. Gaurko eta etorkizuneko erronka nagusienetako gisa definitutako lan-eremu bat; ez da soilik Euskadiren erronka bat, EB osoarena baizik, H2020 Programaren erronka sozialen barruan (Osasuna, Aldaketa Demografikoa eta Ongizatea).